

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

**2016ko abuztuaren 19 eguneko Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako erabakiaren laburpena, 2016ko ekitaldiari dagozkion garapenerako lankidetzak proiektuak batera finantzatzeko deialdiaren oinarri arautzaileak onartu dituenak**

BDNS (Identifikatzailea):320295

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, alegia, Diru-laguntzen Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

#### **Lehenen. Onuradunak**

Planteamenduetan eta helburuetan deialdiaren xedearekin bat datozen Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek –GGKEek- eskatu ahalko dituzte laguntzok, betiere, jarduera eta egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Komunitatean badute. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren edo Nafarroako Gobernuaren elkartearen erregistroan inskribatuta egon beharko dute eta dagokien dokumentazioa eguneratuta eduki beharko dute.

Ezingo dira aurkeztu deialdi honetara izaera publikoa duten erakunde eta organismoak, ezta irabazi asmoa duten enpresa edo gainerako erakundeak ere.

#### **Bigarrenen. Xedea**

Diru-laguntzak ematea txirotutako herrialdeetan hazkunde sozioekonomikoa eta kulturala bultzatzen duten edota Laudioko herritarren eta proiektuetan parte-hartzen duten edota onuradun diren kolektiboen artean elkartasunezko harremanak eta sentsibilizazio-lanak sortzen dituzten proiektuak garatzen dituzten GGKEei.

#### **Hirugarrenen. Oinarri arautzaileak**

Laudio Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2016ko abuztuaren 19an. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

#### **Laugarrenen. Zenbat**

Deialdiak duen ekonomi-zuzkidura bada 25.000,00 euro.

#### **Bosgarrenen. Eskaerak aurkezteko epea**

Hogeita hamar egun natural, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Laudio, 2016ko urriaren 19a

*Alkate-udalburua*

*JON INAKI URKIXO ORUETA*